BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE EKINTZA SAILAREN ETA AVIFES-ASOCIACION VIZCAINA DE FAMILIARES Y PERSONAS CON ENFERMEDAD MENTAL ENTITEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ETXEBEST BIZIMODU INDEPENDENTERAKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y AVIFES-ASOCIACIÓN VIZCAÍNA DE FAMILIARES Y PERSONAS CON ENFERMEDAD MENTAL, PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE APOYO A LA VIDA INDEPENDIENTE ETXEBEST.

## BILDU DIRENAK

Alde batetik, Amaia Antxustegi Ziarda andrea, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren, IFZ: P4800000D, izenean eta haren ordezkari gisa Gobernu Kontseiluaren ………. ko erabakiaren bidez hitzarmen hau formalizatzeko ahalmena duena.

Bestetik, ITZIAR CEBALLOS VILLAHOZ andrea, AVIFES-Asociación Vizcaína de Familiares y Personas con Enfermedad Mental entitatearen (IFZ. G48217004) ordezkaria.

Alderdiek agiri hau formalizatzeko behar den gaitasun juridikoa aintzatetsi diote elkarri eta, ados jarrita, aritzeko eman zaien ordezkaritza onartu diote elkarri.

## SE REÚNEN

De una parte, Doña Amaia Antxustegi Ziarda, Diputada Foral del Departamento de Acción Social, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, con NIF P4800000D, encontrándose facultada para la formalización del convenio por el Acuerdo del Consejo de Gobierno, de fecha …………

De otra parte, Doña ITZIAR CEBALLOS VILLAHOZ, como representante de AVIFES-Asociación Vizcaína de Familiares y Personas con Enfermedad Mental (NIF número: G48217004).

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan, de común acuerdo.

## ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- Kasu honetan, betetzen dira Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan jasotakoa.

Hitzarmenaren edukia lege horren IV. Eranskinean jasota badago ere, legearen 11. artikuluaren 6. apartatuak lege horretatik kanpo uzten du entitate pribatuek gizarte-zerbitzuak ematea zerbitzu horien kostua finantzatze hutsaren bitartez, eta 4. artikuluak ezartzen du kanpo utzitako mota horretako negozioak lege berezian xedatutakoa bete beharko dutela, hau da, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean xedatutakoa.

Gizarte zerbitzuen abenduaren 5eko Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legeko 7. artikuluan gizarte zerbitzuen sistema arautuko duten abiaburu orokorrak zehaztu dira. Horko lehenengo atalean adierazten da gizarte zerbitzuen sistema botere publikoen erantzukizuna dela, eta botere publikoek bermatu beharko dituztela EAEko

## MANIFIESTAN

PRIMERO.- En el presente supuesto, se da cumplimiento a las previsiones recogidas en los apartados 1 y 2 del artículo 6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Si bien el contenido del convenio se encuentra recogido dentro del Anexo IV de dicha Ley, el apartado 6° del artículo 11 de la misma excluye de dicha ley la prestación de servicios sociales por parte de entidades privadas, mediante la mera financiación del costo de dichos servicios, estableciendo el artículo 4 que este tipo de negocios excluidos se regirán por lo dispuesto en la ley especial, esto es, la Ley de Servicios Sociales.

La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en su artículo 7 determina los principios generales por los que se regirá el sistema de servicios sociales, señalando en su apartado primero que el sistema de servicios sociales es responsabilidad de los poderes públicos y que los mismos deberán garantizar la disponibilidad y acceso a las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Gizarte Zerbitzuen eta Prestazioen Katalogoko prestazioak eta zerbitzuak eskuragarri eta jasotzeko moduan daudela.

prestaciones y servicios regulados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Abiaburu horri dagokionez, botere publikoek kudeaketa publiko zuzenaren bidez bermatu beharko dituzten prestazio motak ezarri ondoren, aipatutako legeak ezarri du, modu osagarrian eta oro har, katalogo horrek jasotako zerbitzuak eta prestazioak hornitzeko kudeaketa publikoa eta gizarte ekimenen bidezko kudeaketa mantendu beharko direla.

En relación con ese mismo principio, y después de establecer el tipo de prestaciones cuya gestión pública directa deberán garantizar los poderes públicos, la referida Ley señala que, complementariamente, deberá preverse, con carácter general, la prevalencia de la gestión pública y de la gestión a través de la iniciativa social en la provisión de los servicios y prestaciones previstos en dicho Catálogo.

Xedapen horren helburua zerbitzuen errealitatea eta erabiltzaileen nahiz profesionalen beharren ezagutza zaintzea da, bai eta kudeaketaren eta arretaren kalitatea bermatzeko zailtasunena ere. Bestalde, xedapen horren bidez, jardunbide onen ereduak eskaini nahi dira eta, esperimentu gisa, sistemak ezarritako helburuetan aurrera egitea erraztu eta bizkortuko duten irtenbide berritzaileen eta alternatiboen saioak egin nahi dira.

Y ello, al objeto de preservar un conocimiento específico de la realidad de los servicios y de las necesidades de las personas usuarias y profesionales, así como de las dificultades asociadas a garantizar la calidad de la gestión y de la atención, y al objeto también de ofrecer modelos de buenas prácticas y de ensayar, con carácter experimental, soluciones innovadoras y alternativas que favorecerán y acelerarán el avance del sistema hacia los objetivos que se ha marcado.

Beste alde batetik, gizarte-zerbitzuen sistemak ardatz izan behar dituen printzipioen artean, nabarmentzekoak dira, besteak beste, unibertsaltasuna, berdintasuna eta ekitatea, hurbiltasuna, prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa, pertsona bakoitzari egokitutako arreta integrala eta jarraitua ematea, esku hartzeen diziplina artekotasuna, herritarren parte hartzea eta arretaren kalitatea. Horiek ez ezik, sistemak honako hauek ere izan behar ditu ardatz:

a) Koordinazioa eta lankidetza. Horiei men eginez, administrazio publikoek elkarren artean lan egingo dute, koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko eginkizuna betez, bai eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenena ere. Gainera, subsidiarioki lagunduko dituzte gainerako ekimen pribatuak, V. tituluan ezarritako baldintzen arabera.

b) Gizarte-ekimenak sustatzea. Horri men eginez, botere publikoek irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenetan parte hartzea sustatuko dute gizarte-zerbitzuen alorrean, bereziki Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman.

Por otro lado, entre los principios por los que se debe guiar el sistema de servicios sociales, destacan, además de los de responsabilidad pública, universalidad, igualdad y equidad, proximidad, prevención, integración y normalización, atención personalizada e integral y continuidad de la atención, carácter interdisciplinar de las intervenciones, participación ciudadana y calidad, los de:

a) Coordinación y cooperación, en virtud de los cuales, las administraciones públicas, actuarán de conformidad con el deber de coordinación y cooperación entre sí, así como con la iniciativa social sin ánimo de lucro, y colaborarán subsidiariamente con el resto de la iniciativa privada en los términos establecidos en su título V.

b) Promoción de la iniciativa social, en virtud del cual los poderes públicos promoverán la participación de la iniciativa social sin ánimo de lucro en el ámbito de los servicios sociales, y en particular en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Era berean, aipatutako legearen 60. artikuluan, Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuak emateko ekimen pribatuek parte hartzeari buruzkoan, 2. zenbakian kudeaketa publikoak

De igual modo, el artículo 60, de la referida ley, relativo a la participación de la iniciativa privada en la prestación de servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

AVIFES

Bizkaia foru aldundia diputación foral

zuzenean kudeatuko dituen prestazioak ezarri ondoren, 3. zenbakian hauxe ezarri da: koordinazio eta lankidetzako, gizarte-ekimenak sustatzeko eta baliabideak modu integral, arrazional eta eraginkorrean aprobetxatzeko printzipioak aplikatuz, euskal administrazio publikoak, egokia bada, gizarte-ekimen pribatuen bidez garatutako baliabideak eta ahalmenak baliatzen saiatu beharko dira, Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzu eta prestazioak eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-zerbitzuak ematen direla bermatze aldera.

Servicios Sociales, en su apartado 3, y nuevamente después de establecer en el apartado 2 las prestaciones que serán siempre de gestión pública directa, determina que las administraciones públicas vascas, en aplicación de los principios de coordinación y cooperación, promoción de la iniciativa social y aprovechamiento integral, racional y eficiente de los recursos, procurarán aprovechar, siempre que resulte adecuado, las capacidades y recursos desarrollados por la iniciativa privada social con el fin de garantizar la provisión de las prestaciones y servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

BIGARRENA.- Horri guztiari jarraikiz, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 5. artikuluko 2. zenbakiaren arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema titulartasun publikoko eta itunpeko titulartasun pribatuko prestazioek, zerbitzuek eta ekipamenduek osatuko dute. Gainera, 60. artikuluaren 1. zenbakian xedatutakoaren arabera, beren eskumeneko alorretan, euskal administrazio publikoek Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuak eta prestazioak eta Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren zerbitzuak nola ematen diren kudeatu ahal izango dute, honako formula hauei jarraituz: kudeaketa zuzena (lege horrek ezarritako itunaren araubidea), administrazio publikoen kontratazio-araubidearen araberako zeharkako kudeaketa eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin egindako hitzarmenak.

Ildo horretan, 33.2.b) artikuluak foru-eskumeneko zerbitzuak eta prestazioak edo laguntza ekonomikoak ezartzen ditu, eta, *"2.7. Bigarren mailako arretako beste zerbitzu batzuk, 2.7.2. Autonomiari eusteko zerbitzuak."*-en barnean *"2.7.2.1. Bizimodu independentea babesteko zerbitzua."* aurkitzen da.

Ildo horretatik, Gizarte Zerbitzuei buruzko Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 69. artikuluan ezarri denaren arabera, EAEko herri administrazioek hitzarmenak egin ditzakete gizarte ekimeneko irabazteko asmorik gabeko erakundeekin Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko prestazioak eta zerbitzuak egiteko ondoko kasu hauetan: erakundearen jarduera edo prestazioa edo zerbitzua berezia, presazkoa edo berritzailea eta esperimentala izanik, itunaren araubidea aplikatzea egokia ez denean (arrazoiak azaldu behar dira).

SEGUNDO.- Que, en coherencia con todo ello, el apartado 2 del artículo 5 de la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, establece que el Sistema Vasco de Servicios Sociales estará integrado por prestaciones, servicios y equipamientos de titularidad pública y de titularidad privada concertada, y el apartado 1 del artículo 60, que las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, podrán organizar la prestación de los servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales a través de las siguientes fórmulas: gestión directa, régimen de concierto previsto en la presente ley, gestión indirecta en el marco de la normativa de contratación de las administraciones públicas y convenios con entidades sin ánimo de lucro.

En este sentido, en el artículo 33.2.b) establece los servicios y prestaciones, o ayudas económicas de competencia foral y, dentro del listado *"2.7. Otros servicios de atención secundaria, 2.7.2. Servicios de soporte de la autonomía."* se encuentra el *"2.7.2.1. Servicio de apoyo a la vida independiente."*

En este sentido, el artículo 69 de la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, establece que las administraciones públicas vascas podrán establecer convenios con entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro para la provisión de prestaciones y servicios integrados en el Catálogo del Sistema Vasco de Servicios Sociales en aquellos supuestos en los que la singularidad de la actividad de la entidad o de la prestación o servicio del que se trate, su carácter urgente o su carácter innovador y experimental, aconsejen la no aplicación del régimen de concierto en los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

AVIFES

Bizkaia foru aldundia diputación foral

términos en los que el mismo se regule y así se motive.

Hala ere, artikulu horren arabera, hitzarmenen izaerarekin bateraezinak ez diren itun-araubidearen ezaugarri eta betekizun guztiak aplikatuko zaizkie hitzarmen horiei.

No obstante, lo anterior, dicho artículo establece que se aplicarán a dichos convenios todas las características y *requisitos* propios del régimen de concierto que no resulten incompatibles con la naturaleza de los convenios.

Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legearen, Gizarte Zerbitzuei buruzkoaren, zortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako gaikuntzaren arabera, azaroaren 7ko 168/2023 Dekretuak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen ditu. Horrela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren arabera administrazio publiko bakoitzak ezar dezakeen berariazko erregulazioari kalterik egin gabe, hitzarmen honek Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzuak kudeatzeko itunak eta hitzarmenak ezartzeko ezarritako esparrua errespetatzen du.

De acuerdo con la habilitación prevista en la disposición adicional octava de la Ley Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, el Decreto 168/2023, de 7 de noviembre, regula el régimen de concierto social y los convenios en el Sistema Vasco de Servicios Sociales. De este modo, y sin perjuicio de la regulación específica que cada Administración pública pueda establecer en virtud de la disposición adicional segunda del decreto autonómico, el presente Convenio respeta el marco establecido por la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales para el establecimiento de conciertos y convenios para la gestión de servicios incluidos en el Catálogo de prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Beste alde batetik, hitzarmenak egiteko prozedurari buruzkoa den 68. artikuluak jasotako alderdi guztiak hitzarmen honen klausuletan ezarri dira, administrazioak itundutako erakundea mantentzeko emango duen zenbateko osoa barne, dagozkion modulu ekonomikoen arabera kalkulatutakoa.

Por otra parte, las cláusulas del presente Convenio establecen cada uno de los aspectos referidos en el artículo 68 relativo a la formalización de los conciertos, incluida la determinación de la cantidad global consignada por la administración para el sostenimiento de la entidad convenida estimada de acuerdo con los módulos económicos correspondientes.

Gainerako alderdiei dagokienez, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen V. Titulu, I. Kapituluko 2. atalak ezarritakoa hitzarmen honi aplikatu beharko zaio, bereziki, 63. eta 64. artikuluek (sarrera-baldintzak) eta 65.ak (diskriminazio positiborako baldintzak) ezarritakoa, hitzarmen honek aurrerago zehazten dituen baldintzei jarraikiz; bai eta 66., 67. eta 68. artikuluek ezarritakoa ere.

En todo lo demás, lo previsto en la referida sección 2ª del Capítulo I, Título V de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales resulta de aplicación al presente Convenio y, en particular, lo previsto en el artículo 63 así como en el 64 (requisitos de acceso) y 65 (medidas de discriminación positiva) en los términos que se señalan posteriormente en el presente Convenio, y en los artículos 66, 67 y 68.

<u>HIRUGARRENA</u>.- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 6. artikuluak, besteak beste, jarduteko oinarri hauek ezarri ditu:

<u>TERCERO</u>.- La Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi en su artículo 6 establece igualmente, entre sus principios de actuación, los de:

a) Erantzukizun publikoa eta gizarteratzeko erantzunkidetasuna. Horiei men eginez, hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta administrazio publikoek lankidetzan jardungo dute, besteak beste, lan, etxebizitza, gizarte-

a) Responsabilidad pública y corresponsabilidad en la inclusión social, en virtud del cual las organizaciones del tercer sector social y las administraciones públicas colaborarán para favorecer al máximo el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zerbitzu, hezkuntza eta osasunerako sarbidean ahalik eta gehien laguntzeko. Horrela, erantzukizun publikoko sistemak finkatu eta zabalduko dituzte eta, era berean, familiak eta beste sare batzuk lagundu eta babestuko dituzte, hala nola solidaritatekoak, elkarri laguntzekoak eta babes informalekoak. Hori elkarte batekin lankidetzan aritzeari esker lortuko da, gurasoek eurek osatutako elkartearekin, alegia.

b) Sektore publikoaren eta gizarte-ekimenen arteko lankidetza. Horri men eginez, Euskadiko sektore publikoak eta hirugarren sektore sozialeko elkarteek, besteak beste, euren arteko lankidetza, elkarlana eta parte-hartzea mantentzeko, gauzatzeko eta bultzatzeko beharrezko baldintzak sustatuko dituzte erantzukizun publikoko jardueretan parte hartzeko.

Ildo horretatik, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 7. artikuluko 1. zenbakiak hau ezartzen du: elkarrizketa zibileko irizpideari jarraituz, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko elkarteek eta sareek, eta horien bitartez, gizarte-ekimenen protagonista eta hartzaile diren pertsonek, familiek, kolektiboek zein erkidegoek eskubidea izango dute beraiei dagozkien politika publikoetan, fase guztietan, parte hartzeko, egikaritze-fasea barne, aipatutako legeak ezarritakoaren eta sistema bakoitzaren araudi erregulatzaileen arabera, eta erakunde bakoitzeko gobernu-organoen erabakitzeko ahalmena murriztu gabe.

Horretarako, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen hirugarren kapituluak, esku-hartze sozialaren esparruko politikoak egikaritzeko lankidetza eta elkarlanari buruzkoak, hauxe ezartzen du:

a) 10. artikuluko 1. zenbakiko b) letraren arabera, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek erantzukizun publikoko zerbitzuak, edo pixkanaka-pixkanaka, hala finkatzen ari diren zerbitzuak ematen lagundu beharko dute (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza).

b) Bide batez, 12. artikuluko 3. zenbakiak, erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko lankidetzari buruzkoak, xedatutakoaren

acceso al empleo, la vivienda, los servicios sociales, la educación y la salud, entre otros aspectos, promoviendo la consolidación y el despliegue de los sistemas de responsabilidad pública y contribuyendo, igualmente, a sostener y apoyar a las familias y otras redes de solidaridad, ayuda mutua y apoyo informal, lo cual también constituye un efecto de la cooperación con una asociación constituida por los propios padres y madres de las personas afectadas.

b) Cooperación entre el sector público y la iniciativa social, en virtud del cual, entre otros aspectos, el sector público vasco y las organizaciones del tercer sector social promoverán las condiciones necesarias para sostener, formalizar e impulsar su cooperación, colaboración y participación, en relación con actividades de responsabilidad pública.

En ese mismo sentido, la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, en el apartado 1 de su artículo 7, establece que, en virtud del principio de diálogo civil, las organizaciones y redes del Tercer Sector Social de Euskadi y, a través de ellas, las personas, familias, colectivos y comunidades destinatarias y protagonistas de la intervención social, tendrán derecho a participar en las políticas públicas que les conciernen en todas sus fases, incluida la fase de ejecución, en los términos contemplados en la referida ley y en la normativa reguladora de cada sistema, sin menoscabar las facultades de decisión que correspondan a los órganos de gobierno de cada institución.

A tal efecto, en su capítulo tercero, relativo a la cooperación y colaboración en la ejecución de políticas del ámbito de la intervención social, la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, prevé:

a) En el apartado 1 de su artículo 10, letra b, la participación de las organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi, en la provisión (diseño, prestación, evaluación y mejora) de servicios de responsabilidad pública o que se están consolidando, progresivamente, como servicios de responsabilidad pública.

b) Y en el apartado 3 de su artículo 12, relativo a la cooperación en la provisión de servicios de responsabilidad pública, que dicha

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

arabera, laguntza hori jarduerek izaera berezia dutenean bermatuko da. Izaera bereziko jardueratzat joko dira honako kasu hauetan:

- Antolaketan ezaugarri hauek betetzen badituzte: lurralde eta kolektibo bati lotuta izatea, hartzaileen parte-hartzea (erakundearen gobernuan barne), balizko etekinak erakundearen misiorako berriz inbertitzea eta erantzukizun publikoko zerbitzuak emateaz gain, interes orokorreko beste gizarte-jarduera batzuetan parte hartzea.

- Esku-hartzearen ezaugarriek erantzukizun publikoko zerbitzuen balioa handitzen badute, hau da, pertsonei eta familiei arreta pertsonalizatua eta integrala (hainbat zerbitzu konbinatuz eta laguntza sozialeko funtzioa bere gain hartuz, erantzukizun publikoko alor edo sistema bat baino gehiagokoa izan daitekeena) eskaintzen badiete. Hori ez ezik, arreta jarraitua egin beharko diete, bizitza osoan zehar hala beharko balute, beharren bilakaerari aurrea hartuz eta erantzunak berrituz.

c) Azkenik, 15. artikuluaren 3. zenbakiak, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko administrazio publikoen eta erakundeen arteko lankidetza eta elkarlana gauzatzeko baliabideei buruzkoak, ezarritakoaren arabera, 12.3 artikuluak zehaztutako baldintzak betetzeagatik izaera bereziko jarduera duten erakundeekin batera erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko lankidetza hitzarmenen bidez formalizatuko da, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ezarritakoarekin bat etorriz.

<u>LAUGARRENA</u>.- Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesteko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileko bosgarren xedapen gehigarriaren lehenengo idatz-zatian hauxe xedatu da: Bizkaiko Foru Aldundiak eta beraren foru-erakunde autonomoek lankidetza-hitzarmenak (helburua zeinahi dela) egin ahal izango dituzte nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin, Estatuko Administrazio Nagusiarekin, Gizarte Segurantzarekin, autonomia-erkidegoekin, toki-erakundeekin, haien

participación se garantizará cuando su actividad tenga un carácter singular, considerando que tal supuesto se produce:

- Cuando presenten determinadas características como organización: vinculación a un territorio y colectivo, participación de las personas destinatarias incluso en el gobierno de la entidad, reinversión de cualquier eventual beneficio en su misión, combinación de la participación en la provisión de servicios de responsabilidad pública con otras actividades sociales de interés general.
- Y cuando las características de su intervención añadan valor a la provisión de servicios de responsabilidad pública, ofreciendo a personas y familias una atención personalizada, integral (mediante la combinación de diferentes servicios y la asunción de una función de acompañamiento social, que pueden abarcar incluso más de un ámbito o sistema de responsabilidad pública) y continua e incluso, cuando resulte necesaria, a lo largo de la vida, anticipándose a la evolución de las necesidades e innovando en las respuestas.

c) Finalmente, el apartado 3 del artículo 15, relativo a los instrumentos para formalizar la cooperación y colaboración entre las administraciones públicas y las organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi, establece que la cooperación para la provisión de servicios de responsabilidad pública con entidades con una actividad de carácter singular en los términos definidos en el artículo 12.3 se formalizará a través de convenios de conformidad con la Ley de Servicios Sociales.

<u>CUARTO</u>.- La disposición adicional quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral Presupuestaria 5/2006, de 29 de diciembre, dispone en su apartado primero que la Diputación Foral de Bizkaia y sus Organismos Autónomos Forales podrán celebrar convenios de colaboración cualquiera que sea su objeto, con entidades de derecho internacional público, la Administración General del Estado, la Seguridad Social, las Comunidades Autónomas, las entidades locales,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erakunde autonomoekin, sozietate publikoekin eta gainerako erakunde publikoekin, bai eta gizarte-zerbitzuen arloan diharduten erakundeekin ere, dena dela beraien izaera juridikoa.

los correspondientes organismos autónomos, las sociedades públicas, así como con las entidades que, independientemente de su naturaleza jurídica, tengan como objeto el ámbito de los servicios sociales.

BOSGARRENA.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Erregelamendu Organikoa onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 26ko 67/2025 Foru Dekretuak ezartzen duenez, sail hori arduratuko da, besteak beste, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta gizarte-zerbitzuen arloan, desgaitasun fisikoa, psikikoa eta sentsoriala duten pertsonen prebentzio-, detekzio, diagnostiko-, tratamendu-, orientazio- eta integrazio-politika definitu eta gauzatzeaz, haien herritartasun-eskubideak baliatzeko behar duten arreta espezializatua eta babesa barne.

QUINTO.- El Decreto Foral 67/2025, de 26 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, establece que este Departamento ejercerá en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia y en materia de servicios sociales, entre otras, la definición y ejecución de la política de prevención, detección, diagnóstico, tratamiento, orientación e integración de las personas con discapacidad física, psíquica y sensorial, con inclusión de la atención especializada que requieran y del amparo que precisen para el disfrute de sus derechos de ciudadanía.

SEIGARRENA.- AVIFES-Asociación Vizcaína de Familiares y Personas con Enfermedad Mental entitatea, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetza-hitzarmen hau sinatu duen erakunde laguntzailea, irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 1986. urtean gaixotasun mentala eta euren senideen arteko ekimenetik sortutakoa da eta interes publikoko elkartetzat jo da.

SEXTO.- AVIFES-Asociación Vizcaína de Familiares y Personas con Enfermedad Mental, Entidad Colaboradora firmante del presente Convenio de colaboración con la Diputación Foral de Bizkaia, en adelante la Entidad Colaboradora, es una institución sin ánimo de lucro, constituida en 1986 a partir de la iniciativa de un grupo de familiares de personas con enfermedad mental y declarada de interés público.

Maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 2., 3. eta 4. artikuluen xedapenen arabera, elkartea Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barruan dago; gainera, 12.3 artikuluak ezarritakoaren arabera, elkartearen jarduerak izaera berezia du, hau da:

La Entidad forma parte del Tercer Sector Social de Euskadi, de conformidad con lo previsto en los artículos 2, 3 y 4 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, y, de conformidad con lo previsto en el artículo 12.3 de la referida ley, constituye también una entidad cuya actividad tiene un carácter singular, ya que:

a) Erakunde gisa:

1. Lurralde eta kolektibo bati lotuta dago (Bizkaian gaixotasun mentala eta senideei lotutakoa).

2. Hartzaileen parte-hartzea ezaugarri du, erakundearen gobernuan ere parte hartzen dute (entitatea gaixotasun mentala duten pertsonek eta euren senideek osatzen dute, eta elkartearen bazkide eta ordezkaritza organoaren kide dira).

a) Como organización:

1. Se encuentra vinculada a un territorio y colectivo (las personas de Bizkaia con enfermedad mental, así como sus familiares);

2. Se caracteriza por la participación de las personas destinatarias incluso en el gobierno de la entidad (la entidad está constituida por las personas afectadas y sus familiares que conforman el colectivo de personas socias y el órgano de representación);

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. Balizko etekinak elkartearen misiorako berriz inbertitzen ditu (elkarte horren kasuan, figura juridikotik eratorriko betekizuna da).

4. Erantzukizun publikoko zerbitzuak emateaz gain, interes orokorreko beste jarduera batzuk ere garatzen ditu (zehazki, beste zerbitzu batzuk ematea, eskubideen babesa, kontzientziazio soziala eta boluntariotzaren antolaketa eta elkarrekiko laguntza).

b) Esku-hartzearen ezaugarriei dagokienez, erantzukizun publikoko zerbitzuen balioa handitzen du pertsona eta familiei egiten dien arretari esker; honelako arreta eskaintzen du:

1. Pertsonalizatua. Horretarako, zerbitzuak, zerbitzu baten esku-hartzeak eta oro har hainbat zerbitzuren bidez gauzatutako esku-hartzeak pertsona / familia bakoitzaren arabera moldatzen ditu.

2. Integrala, hainbat zerbitzu konbinatuz eta laguntza sozialeko funtzioa bere gain hartuz. Azken hori erantzukizun publikoko alor edo sistema bat baino gehiagokoa izan daiteke; izan ere, elkarteak urteak daramatza gizarte-zerbitzuak, informazio eta orientazio zerbitzuak; bizitza independente bat promozionatzeko zerbitzuak; biztanleri aktibo baterako zerbitzuak eta familiei babesa eta aisialdirako zerbitzuak ere ematen.

3. Jarraitua, beharrezkoa izatekotan bizitza osoan zehar, beharren bilakaerari aurrea hartuz eta erantzunak berrituz. (Elkarteak, jarraikako laguntza osoa bermatzeko, beharrezkoak diren arreta eta zerbitzuak eskaintzen ditu, beti ere arreta eta zerbitzu hauek bizitzako ziklo ezberdinetara egokituz, haurtzarotik zahartzarora arte).

Azken batean, kasu honetan, eta bereziki (gaixotasun mentala eta euren familiek osatutako erakunde horrek arreta pertsonalizatua integrala eta jarraitua bermatzen), erakundearen eta haren esku-hartzearen ezaugarri guzti-guztiak betetzen dira, erakunde baten jarduera izaera bereziko jarduera gisa ezaugarritzeko aukera ematen dutenak eta arreta-eredu komunitarioarekin eta

3. Reinvierte cualquier eventual beneficio en su misión (en su caso, ésta constituye una obligación derivada de su figura jurídica).

4. Combina la participación en la provisión de servicios de responsabilidad pública con otras actividades sociales de interés general (concretamente, con la provisión de otros servicios, la protección de derechos, la concienciación social y la articulación del voluntariado y la ayuda mutua).

b) Por lo que respecta a las características de su intervención, añaden valor a la provisión de servicios de responsabilidad pública ofreciendo a personas y familias una atención:

1. Personalizada, adecuando los servicios, las intervenciones dentro de un mismo servicio y el conjunto de la intervención llevada a cabo, desde diferentes servicios, a las necesidades de cada persona/familia y su evolución.

2. Integral, mediante la combinación de diferentes servicios y la asunción de una función de acompañamiento social que puede abarcar incluso más de un ámbito o sistema de responsabilidad pública (la entidad viene prestando, desde hace años, servicios sociales; servicios de información y orientación; de promoción de vida independiente y la ciudadanía activa; apoyo a las familias y servicios de ocio y tiempo libre).

3. Continua e incluso, cuando resulta necesaria, a lo largo de la vida, anticipándose a la evolución de las necesidades e innovando en las respuestas (la entidad presta los apoyos y servicios necesarios para un continuo apoyo integral que se adapta a los distintos ciclos de la vida, desde la infancia hasta el envejecimiento).

En definitiva, en este caso, y de manera especial (garantizando una atención particularmente personalizada, integral y continuada desde una entidad constituida por las personas con enfermedad mental y sus familias), se cumplen todas y cada una de las características, de la organización y de su intervención, que permiten caracterizar la actividad de una entidad como

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gizarte-zerbitzuen kalitaterako Europako borondatezko esparruarekin ere lotura dutenak.

Horrenbestez, aipatutako zerbitzua emateko hitzarmena justifikatuta geratu da. Horren bidez, elkarteak foru-erantzukizuneko gizarte-zerbitzuei, hitzarmen honek xede duen zerbitzua bezalakoei, erantsitako balioa aitortu, zaindu eta bultzatu nahi da, honako hauek osatutakoa: baliabideak beharretara moldatzea, hartzaileen parte-hartzea, gertutasuna, pertsonalizazioa, diziplina artekotasuna, arreta integrala eta jarraitua eta prebentzioa (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak nahi duen erakunde-eredua osatzen dute ezaugarri horiek, eta gizarte zerbitzuen kalitateari buruzko borondatezko esparru europarrak ezarri ditu Europar Batasuneko Gizarte-babeserako Batzorderako). Hori ez ezik, elkartearen balio osoa eta horrek kolektibo hartzailearentzat eta Bizkaiko gizartearentzat garatu duen arreta-sarearen balioa ere aitortu, zaindu eta bultzatu nahi da. Izan ere, baldintza horiek mantenduz, beste era batean gordetzea eta bermatzea zaila dirudi.

Bestalde, itunaren araubiderako sarbide-baldintzei dagokienez, hitzarmen honen esparruan aplikatu beharrekoak, hauxe aipatu daiteke:

- Elkartea 1986. urtean sortu zenetik, gaixotasun mentala eta euren familiei arreta egin die modu jarraituan eta eta oro har esperinetzia dauka eguneko zentrurako zerbitzua ematen (Bizkaian zehar 7 zentru ditu). Elkarteak aurrekoaren osagarri diren beste zerbitzu batzuk ere ematen ditu (etxebizitzak). Horiek ez ezik, aisialdirako zerbitzuak ere ematen dituzte eta zerbitzuko erabiltzaileek baliatu ahal izango dituzte.

- Hitzartutako zerbitzuari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroak ezarritako baldintza guztiak betetzeko baliabide eta bitarteko nahiko du, bai eta aplikatu behar zaion araudi guztia betetzeko ere, elkartearen izaera juridikoari zein hitzarmenak xede duen zerbitzu motari dagokienez.

actividad de carácter singular y que guardan también relación con el modelo comunitario de atención y el marco europeo voluntario para la calidad de los servicios sociales.

Y, por tanto, se justifica plenamente la formalización de un convenio para la provisión del servicio referido a efectos de reconocer, preservar, y potenciar, el valor añadido por la entidad a la provisión de servicios sociales de responsabilidad foral como el referido en este convenio, en términos de adaptación de los recursos a las necesidades, participación de las personas destinatarias, proximidad, personalización, interdisciplinariedad, integralidad y continuidad de la atención, y prevención (características que conforman el modelo comunitario de atención que el Sistema Vasco de Servicios Sociales desea para sí, y que recoge el Marco Europeo Voluntario para la Calidad de los Servicios Sociales del Comité de Protección Social de la Unión Europea), así como el valor total de la entidad y de la red de atención que esta ha llegado a configurar para el colectivo destinatario y para la sociedad de Bizkaia, que parece difícil preservar y garantizar, de otra manera, en los mismos términos.

Además, si atendemos a los requisitos de acceso al régimen de concierto, que resultan de aplicación en el marco de este convenio:

- La Entidad, desde que fue constituida en 1986, viene prestando atención de manera continuada a las personas con enfermedad mental y sus familias, y cuenta con experiencia en la provisión del servicio de centro de atención diurna (dispone de 7 centros en distintas zonas de Bizkaia). La entidad presta también otros servicios complementarios a éste (viviendas) así como servicios de ocio que pueden ser igualmente susceptibles de utilizar las personas usuarias del servicio.

- Dispone de los medios y recursos suficientes para garantizar el cumplimiento de las condiciones estipuladas en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales en relación con el servicio convenido, así como el cumplimiento de la normativa que, con carácter general o específico, le es de aplicación, tanto en función de la naturaleza jurídica de la entidad como en función del tipo de servicio objeto de convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Antolaketan, funtzionamenduan eta esku-hartzean berdintasun-printzipioa oso-osorik errespetatuta jarduten du. Xede horrez, eraginkortasunez txertatzen da generoaren ikuspegia eta helburua lortzeko berdintasun-neurriak edo -planak ardazten dira, bereziki familiako eta laneko bizitza kontziliatzeko neurriak (erakundeak berdintasun-batzordea eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana ditu), eta genero-ikuspegia txertatzeko neurriak ezarrita ditu, hala nola sexu-jazarpenen eta/edo sexuagatiko jazarpenaren kasuetarako prebentzio- eta jarduketa-protokoloa, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzeko eskuliburua; erakundean indarkeriarik gabeko eremuak sortzeko jardunbide eta jarraibide onen eskuliburua eta generoaren arloan langileen berariazko prestakuntza).

- En su organización, funcionamiento e intervención actúa con pleno respeto del principio de igualdad mediante la integración efectiva de la perspectiva de género y la articulación de medidas o planes de igualdad orientados a dicho objetivo, en particular medidas orientadas a la conciliación de la vida familiar y laboral (la Entidad dispone de una comisión de igualdad y de un Plan de Igualdad de mujeres y hombres), y ha implantado medidas destinadas a la integración de la perspectiva de género, tales como la aprobación de un Protocolo de prevención y actuación ante casos de acoso sexual y/o sexista; un Manual para realizar un uso no sexista del lenguaje e imágenes; un Manual de buenas prácticas y pautas para generar espacios libres de violencia en la entidad así como formación específica del personal en materia de género).

Beste alde batetik, elkartea Bizkaian gaixotasun mentala eta haien familien erreferentzia-elkartea da, horregatik, gaixotasun mentalaren alorrean, Euskadiko eta estatu-mailako sareen barruan dago.

Por otro lado, la Entidad constituye, de hecho, la entidad de referencia para el colectivo de personas con enfermedad mental y sus familias en Bizkaia, formando parte, como tal, de las redes vasca y estatal, del ámbito de la enfermedad mental.

Diskriminazio positiborako neurriei dagokienez, kasu honetan horiek aplikatzea derrigorrezkoa ez bada ere, neurri horietako asko betetzen ditu. Elkarteak neurri horiek hartu ditu beraz, eta hitzarmenaren indarraldian mantendu nahi dira. Zehazkiago, elkarteak honako neurri hauek bermatzen ditu:

- Gaixotasun mentala dutenen kolektiboan bereziki behar dutenen taldeei, familiei eta pertsonei zuzendutako programak garatzen ditu, bai eta zerbitzuak eskaini ere (emakumeak, gazteak eta gaixotasun mentalaz gain zahartzaroaren ondorioak pairatzen dituztenak).

- Izaera bereziko elkartea delarik, hitzartuko den zerbitzu edo zentroari balioa erantsiko dio horren hartzaileei eta haien familiei zuzendutako beste zerbitzu eta jarduera batzuekiko loturari esker. Zehazki, arestian aipatu den bezala, zerbitzua elkartearen beste zerbitzu batzuei hertsiki lotuta izango da, hala nola, egoitza-zerbitzuak, bizitza independiente baterako promozioa, biztanleria aktiboa eta astialdi eta aisialdirako zerbitzuak.

Respecto a las medidas de discriminación positiva, aun no resultando necesariamente de aplicación en este supuesto se contemplan buena parte de ellas. Constituyen prácticas que la Entidad adopta y se desea que se mantengan a lo largo del periodo de vigencia del convenio. Así, la Entidad:

- Presta servicios y desarrolla programas dirigidos a personas, familias y grupos especialmente desfavorecidos dentro del colectivo de la enfermedad mental (mujeres, jóvenes y personas que añaden a la enfermedad mental el deterioro propio del envejecimiento).

- Tratándose de una entidad con una actividad de carácter singular, agrega valor al servicio o centro a concertar a través de su conexión con otros servicios y actividades dirigidas a las personas destinatarias de este, y a sus familias. Concretamente, como se ha señalado, este servicio se encuentra estrechamente conectado con otros servicios de la entidad: servicios residenciales, de promoción de vida independiente y ciudadanía activa, de ocio y tiempo libre.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Gizarte-laneko boluntarioek zerbitzuan zuzenean lan egiteko aukera barne hartzen du, aisialdia, sentsibilizazio eta gizarte salaketetako jardueretan, hain zuzen ere.

- Zuzendaritza-organoetako kideen % 40 baino gehiago emakumeak dira (egun zuzendaritza batzordea osatzen duten zazpi kideetatik bost emakumeak dira).

- Familia bizitza eta lana bateratzeko modua errazteari zuzendutako neurriak ezarri ditu.

- Kalitatea etengabe ziurtatzeko eta hobetzeko sistemak ezarri ditu.

- Lan-baldintzak hobetzeko neurriak aplikatzen ditu (urteko prestakuntza-plan bat du).

Hitzarmenak ezartzen dituen beste betekizun batzuei dagokienez, aldiz, honako hau azpimarratu nahi da:

- Elkarteak, euskara bere eguneroko ekintzetan barneratzen du (argitalpen eta jakinarazpen guztiak elebidedunean egiten dira eta euskara menperatzea irizpide gehigarri gisa edo nahitaezkotzat jotzen da postu bakanteak betetzeko langilegoaren hautaketan).

- Bestalde, kualifikazioen hobekuntzarako eta eskumenen araberako kudeaketa-sistema du.

Hitzarmenaren sarrera-baldintzak eta betekizun guztiak beteko direla bermatu eta egiaztatu beharko da hitzarmena sinatzean, bai eta horren indarraldian ere.

<u>ZAZPIGARRENA</u>.- AVIFES-Asociación Vizcaína de Familiares y Personas con Enfermedad Mental entitatearen estatutuetan hauxe xedatu da:

"2. artikulua" *Hauexek dira elkarte honen xedeak:*

a) *Administrazio publikoaren aurrean aldarrikapen- eta lankidetza-organoa izatea prebentzioaren, sendatzearen eta gizarte-errehabilitazioaren mailan gaixo mentalen*

- Contempla la participación de voluntariado social directamente en el servicio, y en concreto, en actividades de ocio y de sensibilización y denuncia social.

- Cuenta con más de un 40% mujeres en los órganos de dirección (actualmente cinco de las siete personas que componen la Junta Directiva, son mujeres).

- Aplica medidas orientadas a la conciliación de la vida familiar y laboral.

- Aplica sistemas de aseguramiento o mejora continua de la calidad.

- Aplica medidas orientadas a la mejora de las condiciones laborales (entre ellas, cuenta con un plan de formación anual).

Respecto a otras obligaciones que establece el presente Convenio cabe destacar que:

- La Entidad incorpora el euskera en su actividad habitual (todas las publicaciones y comunicaciones se presentan en forma bilingüe y la acreditación del conocimiento de euskera se incluye como requisito imprescindible o valorable en la provisión de personal para ocupar nuevas vacantes en la plantilla).

- Asimismo, dispone de un sistema de mejora de las cualificaciones y de desarrollo de las competencias profesionales.

El cumplimiento del conjunto de requisitos de acceso y obligaciones que contempla el presente Convenio debe garantizarse y acreditarse en el momento de formalizar el convenio y a lo largo de todo su periodo de vigencia.

<u>SÉPTIMO</u>.- Los Estatutos de AVIFES-Asociación Vizcaína de Familiares y Personas con Enfermedad Mental disponen:

*"Artículo 2º Los fines de esta Asociación son:*

a) *Ser un órgano reivindicativo y de colaboración con la Administración Pública con el fin de que ponga los medios necesarios para lograr una asistencia psiquiátrica eficaz a niveles*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

*laguntza psikiatriko eraginkorra lortzen duten baliabideak eskura jartzeko.*

b) *Gizartea gaixo mentalen egoeraz kontziente izatea, aldeko iritzi publikoa sortzeko.*

c) *Gaixo psikikoak dituzten familientzat edo arazoa interesatzen zaion beste edozein pertsonarentzat kontsulta-, informazio- eta orientazio-zentro modura erabiltzea.*

d) *Psikiatriako eta osasun mentaleko zerbitzuetan ukitutakoen partaidetza sustatzea.*

e) *Gizarteratu eta laneratu daitezen bultzatzea".*

*preventivo, curativo y de rehabilitación social y de enfermos mentales.*

b) *Procurar la toma de conciencia por parte de la sociedad, de la situación de dichos enfermos mentales, con el objetivo de crear una opinión pública favorable.*

c) *Servir de centro consultivo, información y orientación, para las familias con enfermos psíquicos o cualquier otra persona que le interese este problema.*

d) *Fomentar la participación de los afectados, en los servicios psiquiátricos y de salud mental.*

e) *Fomentar la reinserción social labora".*

Aurrekari horien arabera, bi erakundeek bidezkotzat jo dute lankidetza hitzarmena egitea. Jarraian hitzarmeneko klausulak azalduko dira:

En base a tales antecedentes, ambas entidades consideran oportuno establecer un convenio de colaboración con arreglo a las siguientes:

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

<u>LEHENENGOA.</u>- XEDEA.

Hitzarmenaren xedea Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren eta AVIFES-Asociación Vizcaína de Familiares y Personas con Enfermedad Mental entitatearen arteko lankidetza-harremanak ezartzea da, ETXEBEST Bizimodu Independenterako Laguntza Zerbitzua ematea da.

<u>PRIMERA</u>.- OBJETO.

El presente Convenio tiene por objeto establecer las relaciones de cooperación entre la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social - y AVIFES-Asociación Vizcaína de Familiares y Personas con Enfermedad Mental, para la prestación del Servicio de Apoyo a la Vida Independiente ETXEBEST.

<u>BIGARRENA</u>.- HITZARMENAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Hitzarmen hau administratiboa da eta bertan xedatutakoari ez ezik, zuzen edo zeharka aplika daitezkeen administrazio zuzenbideko arauei ere lotu behar zaie.

Hain zuzen, jarraian adieraziko diren testuetan xedatutakoa aplikatu behar da:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Eusko Legebiltzarrarena, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

<u>SEGUNDA.-</u> RÉGIMEN JURÍDICO DEL CONVENIO.

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho administrativo que, directamente o por analogía, pudieran resultar de aplicación.

En particular, resulta aplicable lo dispuesto en:

- La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 5/2006 Foru Arauaren Testu Bategina onetsi duena.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko kasuan kasuko urteko aurrekontu orokorrari buruzko foru araua.
- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoa.
- 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa.
- 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena.
- 168/2023 Foru Dekretua, azaroaren 7koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituena.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Agindua, ekainaren 20koa.
- 4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

HIRUGARRENA.- ZERBITZUAREN DEFINIZIOA ETA XEDEAK.

Etxebest bizimodu independentea egiten laguntzeko zerbitzu bat da, eta orientazioa eta esku-hartze sozial espezializatua eskaini nahi die

- Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi.
- El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- El Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral Presupuestaria 5/2006.
- La Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia del año correspondiente.
- La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.
- La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia.
- El Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.
- El Decreto Foral 168/2023, de 7 de noviembre, por el que se regulan el régimen de concierto social y los convenios en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- El Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.
- La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- La Ley 4/2024, de 15 de febrero, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas trans.

TERCERA.- DEFINICIÓN DEL SERVICIO Y OBJETIVOS.

Etxebest es un Servicio de Apoyo a la Vida Independiente que busca proporcionar orientación e intervención social especializada a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

etxean bizi diren gaixotasun mentala duten pertsonei (bakarrik, desgaitasunen bat duen bikotekidearekin edo gaixotasun mentala duten beste pertsona batzuekin) bizimodu independentea izaten jarrai dezaten. Prebentzioaren, psikoheziketaren eta laguntzaren ikuspegietatik egiten du lan.

Helburu hauek ditu:

- Pertsonak beren ohiko etxebizitzan gera daitezela lortzea, betiere baldintza egokietan.
- Deskonpentsazio klinikoko egoerak edo ahalegin autolitikoak artatzea eta detektatzea, eta, hala badagokio, ospitaleratzeko edo arreta anbulatoriorako izapideak egitea.
- Laguntza eta orientazioa ematea medikazio psikiatrikoa kudeatzeko.
- Bizilagunekin interakzio positiboa ahalbidetzea, eta, horretarako, sor daitezkeen gatazkak prebenitzea edo konpontzea.
- Isolamendu-, abusu- edo babesgabetasun-egoerak prebenitzea, bai eta norbere burua ez zaintzeko edo norbere buruarekiko axolagabekeriaz jokatzeko joerak ere ("Diogenesen sindromea" agertzea eragin dezakete).
- Taldean bizi direnen kasuan (gaixotasun mentala duten beste pertsona batzuekin edo bikotekidearekin), etxebizitzan bizikidetza egokia izateko laguntza ematea, eta, horretarako, egoiliarren artean harreman positiboak izatea eta erantzukizun indibidualak hartzea sustatzea.
- Erabiltzaileek bizimodu independentearen ibilbidean egiten dituzten aurrerapenak bultzatzea eta babestea.
- Pertsona horiei ematen zaien gizarte-laguntza kudeatzea, hala eskatzen duen edozein egoeratan.
- Haien kalteberatasun-egoeraren edo desgaitasunaren ondorioz legozkiekeen gizarte-prestazioak edo bestelakoak detektatzea eta kudeatzen laguntzea.

nivel preventivo, psicoeducativo y asistencial a aquellas personas con enfermedad mental que viven en su hogar, solas, con pareja que presenta alguna discapacidad, o con otras personas con enfermedad mental, con el fin de que continúen su vida independiente.

Tiene como objetivos:

- Procurar el mantenimiento de las personas en su domicilio habitual en condiciones adecuadas.
- Atención y detección de situaciones de descompensación clínica o intentos autolíticos, interviniendo si fuera el caso en la tramitación de ingreso hospitalario o atención ambulatoria.
- Apoyo y orientación en la gestión de la medicación psiquiátrica.
- Posibilitar una interacción positiva con el vecindario, previniendo o resolviendo los conflictos que pudieran surgir.
- Prevenir situaciones de aislamiento, abuso o desprotección, así como de falta de autocuidado, abandono personal que puedan llevar incluso a la aparición del “Síndrome de Diógenes”.
- En caso de convivencia grupal (varias PCEM o vida en pareja), apoyar una adecuada convivencia en la vivienda, potenciando relaciones positivas entre los residentes y la asunción de responsabilidades individuales.
- Favorecer y apoyar los avances de las personas usuarias en su itinerario de vida independiente.
- Gestionar el acompañamiento social a estas personas en aquellas situaciones de índole diversa en que lo requieran.
- Detección y apoyo en la gestión de prestaciones sociales u otras que le pudieran corresponder derivadas de su situación de vulnerabilidad o de su discapacidad.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: II4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

LAUGARRENA.- HARTZAILEAK.

Zerbitzu hau gaixotasun mentalaren diagnostikoa eta % 33ko edo hortik gorako desgaitasunaren ziurtagiria duten pertsona helduentzat (18 urtetik gorakoak) da, baldin eta honako profil hau betetzen badute:

- Modu independentean bizitzea: bakarrik, desgaitasunen bat duen bikotearekin edo gaixotasun mentala duten beste pertsona batzuekin.
- Programa borondatez onartzea.
- Autonomia pertsonal eta funtzionamendu-autonomia nahikoak izatea ohiko etxebizitzan modu autonomoan bizi ahal izateko.
- Egungo egoera klinikoaren arrazoi izan daitekeen patologia dualik edo toxikoen kontsumo esanguratsurik ez izatea.
- Tratamendu psikiatrikoan eta Bizkaiko Osasun Mentalaren Sarearen jarraipenarekin, egoera psikopatologiko egonkorrean egotea, eta sartzean krisian ez egotea.
- Portaera oldarkorrik ez izatea.

Hilean gehienez 100 onuraduni emango zaie arreta.

CUARTA.- PERSONAS DESTINATARIAS.

El servicio se dirige a Personas adultas (mayores de 18 años) con un diagnóstico de enfermedad mental y en posesión del certificado de discapacidad igual o superior al 33%, y que cumplan con el siguiente perfil:

- Viven de forma independiente: bien solos y solas, con pareja que presenta alguna discapacidad, o con otras personas con enfermedad mental.
- Voluntariedad en la aceptación del programa.
- Con niveles de autonomía personal y de funcionamiento suficiente que les permita vivir autónomamente en su domicilio habitual.
- Ausencia de patología dual o consumo significativo de tóxicos que expliquen la condición clínica actual.
- En tratamiento psiquiátrico y con seguimiento desde Red de Salud Mental de Bizkaia, en una situación estable psicopatológicamente y que no estén en crisis en el momento de su incorporación.
- Sin patrones de comportamiento agresivo.

Se establece atender a un máximo de 100 personas al mes.

BOSGARRENA.- HITZARMENAREN GEHIENEKO PREZIOA.

Erakunde laguntzaileak aurkeztutako eta hitzarmen honi erantsitako A eranskinean jasotako gastuen eta diru-sarreren egoeraren aurreikuspenarekin bat etorriz, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzeko prezio unitarioak eta hitzarmen honen urteko gehieneko prezioa ezartzen ditu.

Zerbitzuari lotutako gehieneko kostua BOSTEHUN MILA LAUREHUN EUROKOA (500.400,00 €) da. Zenbateko horretatik, BERREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA ETA BERREHUN EURO (247.200,00 €) 2026ko ekitaldiko zerbitzuaren gehieneko kostuari dagozkio, eta BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA ETA BERREHUN EURO

QUINTA.- PRECIO MÁXIMO DEL CONVENIO.

De acuerdo con la previsión del estado de los gastos e ingresos presentados por la entidad colaboradora y recogidos en el anexo A que se adjunta al presente Convenio, la Diputación Foral de Bizkaia fija los precios unitarios por persona usuaria del servicio, así como el precio máximo anual del presente Convenio.

El coste máximo asociado al servicio asciende a un total de QUINIENTOS MIL CUATROCIENTOS EUROS (500.400,00€). De dicha cantidad, DOSCIENTOS CUARENTA Y SIETE MIL DOSCIENTOS EUROS (247.200,00€) corresponden al coste máximo del servicio en el ejercicio 2026 y DOSCIENTOS CINCUENTA Y TRES MIL DOSCIENTOS (253.200,00€) al coste

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

(253.200,00 €) 2027ko ekitaldiari dagokion gehieneko kostuari, hori guztia hilean artatutako 100 onuradunentzat gehienez, eta jarraian zehazten den banakapenaren arabera:

máximo correspondiente al ejercicio 2027, todo ello para un máximo de 100 personas beneficiarias atendidas al mes, y según el desglose que se detalla a continuación:

| Urtea/ Año | Hilabete-kop. / N.º de meses | Hileko zenbatekoa onuradun bakoitzeko/ Importe mensual por persona beneficiaria | Gehieneko onuradunak, hileko / Personas beneficiarias máximas por mes | Zerbitzuaren hileko gehieneko kostua / Coste máximo del Servicio al mes | Zerbitzuaren urteko gehieneko kostua / Coste máximo del Servicio anual |
|---|---|---|---|---|---|
| 2026 | 12 | 206,00 € | 100 | 20.600,00 € | 247.200,00 € |
| 2027 | 12 | 211,00 € | 100 | 21.100,00 € | 253.200,00 € |

Zenbateko horrek barne hartzen ditu zerbitzuen berezko gastu guztiak, bai eta aplika dakizkiokeen zergak, tributuak eta tasak ere.

Bereziki, honako hauek ez dira Hitzarmenari lotutako gastutzat hartuko:

a) Ondasun higiezinetako lanak, kontserbatzeko eta mantentzeko funtsezkoak direnak izan ezik, eta hobekuntza- eta birgaitze-lanen ondoriozko ibilgetuaren baliorik handienaren amortizazioa izan ezik.

b) Erakundearen publizitate- eta propaganda-gastu orokorrak.

c) Erakundeak antolatutako ekitaldi kolektiboei dagozkien gastuak, hitzartutako jarduerarekin zerikusirik ez dutenak.

d) Langileek ikastaroak egiteko eta horietara joan eta etortzeko gastuak, zuzeneko arretako langileen etengabeko prestakuntzari dagozkion gastuak izan ezik.

e) Gastu pertsonalak (bidaiak, hegazkin-txartelak, ostatua, erakundeko langileentzako garaje-lokalen gastuak).

f) Entitateko langileen dokumentazioa (otorduak, aparkalekua...).

g) Opariei edo artikuluak banatzeko kanpainei dagozkien gastuak.

En dichas cifras se entienden incluidos todo tipo de gastos inherentes a los servicios y cuantos impuestos, tributos y tasas fueran aplicables.

En particular, no se considerarán gastos vinculados al convenio:

a) Obras en bienes inmuebles, a excepción de las esenciales para la conservación y mantenimiento y a excepción de la amortización del mayor valor del inmovilizado derivado de obras de mejora y rehabilitación.

b) Gastos generales de publicidad y propaganda de la entidad.

c) Gastos relativos a eventos colectivos organizados por la entidad, no relacionados con la actividad convenida.

d) Gastos de asistencia y desplazamiento a cursos del personal, con excepción de gastos relativos a formación continua del personal de atención directa.

e) Gastos personales (viajes, billetes de avión, alojamiento, gastos de locales de garaje para el personal de la entidad).

f) Documentación, comidas, parking, etc.) del personal de la entidad.

g) Gastos relativos a regalos, obsequios o campañas de distribución de artículos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

h) Administrazio publikoek erabakitako zehapenei edo itzulketei dagozkien gastuak.

h) Gastos relativos a sanciones o reintegros acordados por Administraciones Públicas.

SEIGARRENA.- ERABILTZEKO ARAUBIDEA. ERABILTZAILEAK IZENDATZEA.

SEXTA.- RÉGIMEN DE UTILIZACIÓN. DESIGNACIÓN DE PERSONAS USUARIAS.

Erakunde laguntzaileak hautatuko ditu bizitza independentea egiten laguntzeko zerbitzu horren erabiltzaileak, baldin eta laugarren klausulan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Será la entidad colaboradora la que seleccione a las personas usuarias de este servicio de apoyo a la vida independiente que cumplan con los requisitos establecidos en la cláusula cuarta.

ZAZPIGARRENA.- GIZA BALIABIDEAK.

SÉPTIMA.- RECURSOS HUMANOS.

INDARREKO ARAUTEGIA:

NORMATIVA VIGENTE:

Erakunde laguntzaileak eta azpikontratatutako erakundeek (egonez gero) gizartearen eta lanaren arloko indarreko arautegian ezarritakoa bete beharko dute, bai eta arautegia aldatu ahala eguneratu ere, erakunde laguntzailearen eta bertan lan egiten duten langileen artean ezarritako lan-harremanei dagokienez. Era berean, eta aplikazio-eremuaren barruan dagoen heinean, erakunde laguntzailean kontraturik gabe ari diren boluntarioek edota laguntzaileek ere bete behar dute arautegi hori.

La Entidad Colaboradora y, en su caso, las entidades subcontratadas estarán obligadas al cumplimiento de lo dispuesto en la normativa socio-laboral vigente, y a su actualización conforme se modifique, en lo que se refiere a las relaciones de trabajo establecidas entre dicha Entidad Colaboradora y las trabajadoras y trabajadores que presten sus servicios para ella. Asimismo, y en la medida en que resulte comprendido dentro de su ámbito de aplicación, tal normativa será de obligado cumplimiento para con el personal voluntario y/o colaborador de la Entidad Colaboradora cuya vinculación con la misma no se encuentre regulada por una relación contractual.

Hori dela eta, aditzera eman nahi da Bizkaiko Foru Aldundiak ez duela inolako lan-erlaziorik erakunde laguntzailearen langileekin, ez eta hark hitzartutako zerbitzua egiteko azpikontratatzen dituen enpresen langileekin ere.

En este orden de cosas, se hace constar que la Diputación Foral de Bizkaia queda desvinculada a todos los efectos de cualquier relación laboral con el personal de la Entidad Colaboradora y/o de las empresas subcontratadas por ésta para la prestación del mismo.

BEHAR DIREN LANGILEAK:

PERSONAL NECESARIO:

Erakunde laguntzaileak itundutako zerbitzua egiteko behar adina langile eduki behar ditu.

La Entidad Colaboradora deberá disponer del personal adecuado en número para realizar el servicio convenido.

Legez ezarritako profesionaltasunaren printzipioari jarraituz, langile guztiek eduki behar dute titulu akademiko edo ofizial egokia, edo, bestela, lanbide-maila eta esperientzia frogatu behar dute.

Obedeciendo al principio de profesionalidad legalmente establecido, la totalidad del personal ha de contar con la debida titulación académica oficial o, en su caso, deberá tener acreditado su nivel y su experiencia profesionales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hitzartutako zerbitzua egiteko behar diren langileak zehaztean, ezin dira kontuan hartu boluntarioak ez ikasleak.

No cabe incluir al voluntariado ni a estudiantes dentro de la determinación del personal necesario para llevar a cabo el servicio convenido.

ZORTZIGARRENA.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN ERANTZUKIZUNAK.

OCTAVA.- RESPONSABILIDADES DE LA ENTIDAD COLABORADORA.

ZERBITZUA EMATEKO PRINTZIPIOAK.

PRINCIPIOS DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO.

1. Erakunde laguntzaileak zerbitzu hau ezinbestez hitzarmen honen arabera emango du, baldintzarik onenetan kalitate eta zuhurtzia teknikoaren irizpideetan oinarrituta, behar bezalako jarraipenez, fede onez eta arduraz, zerbitzuaren helburuetara ahalik eta ongien iriste aldera.

1. La Entidad Colaboradora se obliga al resultado de prestar este servicio de acuerdo con lo previsto en el presente Convenio en base a criterios de calidad y rigor técnico en las mejores condiciones posibles, con la debida continuidad, buena fe y diligencia, dirigidas hacia el mejor logro de los objetivos del servicio.

2. Erakunde laguntzaileak garatzen duen jarduerari dagokionez, berezkoa da eta jarduera garatzearen gaineko erantzukizuna erakunde laguntzaileak berak bere gain hartuko du oso-osorik.

2. En cuanto que la actividad que desarrolla la Entidad Colaboradora es propia de ella, la responsabilidad derivada del ejercicio de dicha actividad es asumida íntegramente por ella.

Horrenbestez, hirugarrenek (langileek barne) auziak edo edozein erreklamazio planteatuz gero, erakunde laguntzaileak erantzukizun osoaz Bizkaiko Foru Aldundia salbuetsi eta onik mantenduko du. Gauza bera gertatuko da kostu edo tasa judizialak edo abokatuen eta prokuradoreen fakturak ordaindu behar direnean, baldin eta erantzukizunak hitzarmenaren xede diren lanekin zuzenean edo zeharka lotuta badaude ala hitzarmenaren ondorioz sortu badira.

En consecuencia la Entidad Colaboradora exonerará y mantendrá indemne a la Diputación Foral de Bizkaia de toda responsabilidad derivada de pleitos o de cualquier reclamación planteada por terceros, incluido su personal, así como de cualquier responsabilidad referida a imposición de costas, tasas judiciales o minutas de abogados/as y procuradores/as, incluso en el caso de que tales responsabilidades estén relacionadas directa o indirectamente con los trabajos o servicio objeto del convenio, o derivados del mismo.

BARNE KUDEAKETARAKO BETEBEHARRAK.

OBLIGACIONES DE GESTIÓN INTERNA.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak (Gizarte Ekintza Saila) erakunde laguntzaileari arreta jaso duten pertsonen kostua ordaintzeko, bi faktura aurkeztuko ditu.

1. Con el fin de que la Diputación Foral de Bizkaia – Departamento de Acción Social abone a la Entidad Colaboradora el coste del servicio, ésta presentará facturas mensuales.

Faktura bakoitzari hilabeteko zerbitzuaren hartzaileen zerrenda erantsiko zaio, eta honako datu hauek zehaztuko dira:

- Nortasun-agiri nazionala pseudonimizatu eta zifratua.
- Desgaitasunaren eta, hala badagokio, mendekotasunaren gradua (dagokion gradua edo puntuak adierazita, edo, hala badagokio, baloratzeko eskaera-data).

A cada factura deberá adjuntar una relación de las personas destinatarias del servicio por mes y con detalle de los siguientes datos:

- Documento Nacional de Identidad seudonimizado y cifrado.
- Grado de discapacidad y, en su caso, grado de dependencia (con indicación del grado o puntos correspondientes o, en su caso, fecha de solicitud de la valoración).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eskatuz gero, erakunde laguntzaileak informazio funtzionala, laguntza-informazioa, informazio ekonomikoa eta estatistika-informazioa eman beharko du, kontratatu den zerbitzuaren jarraipena egin ahal izateko.

Nolanahi ere, gutxienez, sinatuko den hitzarmena aplikatu eta hurrengo urteko lehenengo seihilekoan honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) Hitzarmenaren aplikazio-ekitaldiko urteko kontuen auditoriari buruzko txostena.

b) Eskainitako zerbitzuaren justifikazio-kontua eta Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa inskribaturiko kontu-auditore baten txostena.

Auditorea berraztertzen ari den justifikazio-kontuaren edukia:

1.º Hitzarmena bete dela frogatzen duen jarduketa-memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adierazten dituena. Gutxienez ondoko hauek zehaztu behar ditu:

- Onuradunak: Onuradunen kopurua eta tipologia edo plazak sexuaren arabera banatuta.

- Onuradun bakoitzeko egindako ekintzen edo zerbitzuen deskribapena (denboraldiak, tokiak, maiztasuna, egikaritze-datak...).

- Hitzarmenaren xedea betetzeko giza baliabideak (sexuaren arabera banatuta) eta bitarteko materialak.

2.º Memoria ekonomikoa; bertan datu hauek zehaztu behar dira:

- Zerbitzu edo jarduerari egotzitako gastuen eta diru-sarreren egoeraren justifikazioa, hitzarmen honen C eranskin gisa erantsitako ereduaren arabera.

2. A requerimiento de la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social - la Entidad Colaboradora habrá de facilitar la información económica y estadística que le sea solicitada para el seguimiento del servicio que se convenia.

En todo caso, y como mínimo, presentará durante el primer semestre del año siguiente al de aplicación del convenio a suscribir la siguiente documentación:

a) Informe de auditoría de cuentas anuales del ejercicio de aplicación del convenio.

b) Cuenta justificativa del servicio prestado con informe de una persona auditora de cuentas inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas.

El contenido de la cuenta justificativa objeto de revisión por parte de la persona auditora será de:

1º Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento del convenio, con indicación de las actividades o servicios realizados y de los resultados obtenidos, que deberá tener el siguiente contenido mínimo:

- Personas beneficiarias: Número de personas beneficiarias y tipología, o plazas desagregadas por sexo.

- Descripción de la acciones o servicios realizados (períodos, lugares, frecuencia, fechas de ejecución) por cada una de las personas beneficiarias.

- Recursos humanos (desagregados por sexo) y materiales destinados al cumplimiento del objeto del convenio.

2º Una memoria económica que deberá contener:

- Justificación del Estado de Gastos e Ingresos imputados al servicio o actividad, conforme al modelo adjunto como Anexo C al presente Convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Gastuen egoera-orria osatzen duten partidetako bakoitzerako, gastuen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren identifikazioarekin, haren egiaztagiriarekin, zenbatekoarekin, jaulkipen- eta ordainketa-datarekin eta proiektuari egotzitako ehunekoarekin, hitzarmen honi erantsitako D eranskinaren arabera.

- Diru-sarreren egoera-orria osatzen duten partidetako bakoitzerako, sarreren zerrenda sailkatu bat, zordunaren identifikazioarekin, haren egiaztagiriarekin, zenbatekoarekin, jaulkipen- eta kobrantza-datarekin eta proiektuari egotzitako ehunekoarekin, hitzarmen honi erantsitako E eranskinaren arabera.

- Justifikazio-kontuan jasotako memoria ekonomikoaren gastuen egoera-orrian hainbat ikastetxeri egotz dakizkiekeen (banatu daitezkeen) zeharkako eta/edo zuzeneko kostuak sartzen direnean, , irizpide objektibo eta egiaztagarrietan oinarrituta erabilitako banaketa-irizpideen azalpena eta proiektuari egotzitako ehunekoa lortzeko egindako kalkulua jasoko dira. Gainera, honako hauek hartuko dira kontuan:

  a) Zuzendaritzako langileen gastuei dagokienez, egozpen-ehunekoak aplikatu aurretik kontuan hartu beharreko gehieneko mugak ezin izango du gainditu foru-administrazioan zuzendaritza-lanak egiten dituzten pertsonen soldata-ordainsariaren zenbatekoa.

  b) Egotzitako gastu zuzenak bezala, gastu orokorrak/zeharkakoak ere gastuaren izaerari dagokion gastu-egoeraren partidan sartu beharko dira, hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, egozpen-ehunekoa, jaulkipen-data eta ordainketa zehaztuta.

- Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos, una relación clasificada de los mismos, con identificación del acreedor, de su documento acreditativo, su importe, fecha de emisión y pago, así como porcentaje imputado al proyecto, conforme al Anexo D que se adjunta al presente Convenio.

- Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación clasificada de los mismos, con identificación del deudor, de su documento acreditativo, su importe, fecha de emisión y cobro, así como porcentaje imputado al proyecto, conforme al Anexo E que se adjunta al presente Convenio.

- Cuando en el estado de gastos de la memoria económica contenida en la cuenta justificativa se incluyan costes indirectos y/o directos imputables (repartibles) a distintos centros, se incluirá una explicación de los criterios de reparto utilizados en base a criterios objetivos y comprobables y el cálculo realizado para obtener el porcentaje imputado al proyecto. Además, se tendrá en cuenta lo siguiente:

  a) En lo que respecta a los gastos del personal directivo, el límite máximo a considerar antes de aplicar los porcentajes de imputación no podrá superar el importe de retribución salarial de las personas que ejercen labores de dirección en la administración foral.

  b) Al igual que los gastos directos imputados, los gastos generales/indirectos, deberán incluirse en la partida del estado de gastos correspondiente a la naturaleza del gasto, con identificación del acreedor, del documento, su importe, porcentaje de imputación, fecha de emisión y pago.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Zuzeneko langile banagarrien kasuan (ez gerentzia, ez administrazioa), proiektuari egozten zaion ehunekoa justifikatzea eskatuko da, langile horiek parte hartzen duten proiektu bakoitzerako sinatutako ordutegi-zatien bidez.

- Hiru aurrekontu, baldin eta gastu jakin batek gainditzen badu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako aurreikusitako zenbatekoa (onuradunak gastu hori egin aurretik eskatu behar du), edo hori ezinezkoa egiteko arrazoien justifikazioa.
- Lotutako erakunde batekin azpikontratazioa eginez gero, azpikontratazio horren aurreko hiru aurrekontu aurkeztu beharko dira, eskaintzarik merkeena aukeratu eta merkatuko balioan azpikontratatu dela frogatzeko.
- Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, baita horien ondoriozko interesak ere.

Horri dagokionez, auditorearen txostena Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren 2019ko maiatzaren 2ko 836/2019 Foru Aginduan aipatzen den bezala egin behar da.

Hortaz, aipatutako Foru Aginduaren 2. eranskineko 3. Puntuko 2.2 atalean ezartzen den memoria ekonomikoaren berrikuspena honela egingo da:

- Zerbitzuari edo jarduerari egotzitako langileen gastu guztien gainean.
- Zuzeneko gainerako gastuen kasuan, lagin bat hartu behar da —%40koa bai_no handiagoa— gastuen zerrenda sailkatutik, prozedura estatistikoak aplikatuta; konfiantza-maila %95ekoa izan behar da eta gehieneko errorea, gutxi gorabehera %5koa.

c) En el caso de personal directo repartible (no gerencia ni administración) se exigirá justificación del porcentaje de imputación al proyecto mediante partes horarios firmados por dicho personal para cada uno de los proyectos en los que participe.

- Tres presupuestos en el caso de que un determinado gasto supere el importe previsto para el contrato menor en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, que debe solicitar la persona beneficiaria antes de incurrir en el mismo, o la justificación de las causas que no lo hacen posible.
- En caso de realizarse subcontratación con entidad vinculada, se deberá aportar tres presupuestos fechados antes de dicha subcontratación como prueba de que se ha elegido la oferta más barata y se ha subcontratado a valor de mercado.
- En su caso, la carta de pago de reintegro, en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.

El informe de persona auditora se elaborará conforme a lo dispuesto en la Orden Foral 836/2019, de 2 de mayo, del diputado foral de Hacienda y Finanzas.

A estos efectos, la revisión de la memoria económica, contemplada en el apartado 2.2 del punto 3 del Anexo 2 de la citada Orden Foral, se realizará:

- Sobre la totalidad de los gastos de personal imputados al servicio/actividad.
- Para el resto de los gastos directos, se seleccionará de la relación clasificada de gastos, una muestra mediante procedimientos estadísticos, que supere el 40% que cumplirá con un nivel de confianza del 95% y un error máximo de más o menos un 5%.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

AVIFES

Bizkaia foru aldundia diputación foral

- Kasu horretan, adierazi behar da zer laginketa-sistema erabili den eta aztertutako laginak zenbat elementu eta zer zenbateko duen totalarekiko.

Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera, erakunde laguntzaileak gertatzen diren altak eta baxak, behin betikoak zein aldi baterakoak, jakinarazi behar dizkio Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari, eta zerbitzuaren ohiko jardunean eragina duen bestelako gorabehera guztien berri eman behar dio.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eskatutako dokumentazioa eman beharko du, oro har, erabiltzaileei, langileei, administrazioari eta abarrei dagokienez, zerbitzuak egoki funtzionatzen duela egiaztatze aldera.

BESTELAKO BETEBEHARRAK.

1. Erakunde laguntzailea eremu guztietan aplikatu ahal zaizkion baldintzei eta xedapenei lotuko da hertsiki.

2. Erakunde laguntzaileak aplikatu beharreko arauen arabera aurkeztu beharreko baimen eta erregistro guztiak eskatu eta izapidetu behar ditu.

3. Erakunde laguntzaileak aplikatu ahal zaizkion zerga, karga eta gainerako guztiak ordaindu behar ditu.

4. Hitzarmen honekin zerikusia duela kanporanzko proiekzioa duen jarduera orotan Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren lankidetzaren berri eman behar da, hau da, Aldundiaren izendapena eta logotipoa agertu behar dira (Aldundiaren anagrama), eta une bakoitzean hark adierazten duen testua jarri behar da.

5. Erakunde laguntzaileak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, erabiltzaileekin eta haien senideekin eta arduradunekin dituen harremanetan, Gizarte Ekintza Sailak onetsitako inprimaki elebidunak erabiliko ditu; inprimakiotan zerbitzua Bizkaiko Foru

- Se indicará además el sistema de muestreo empleado, el número de elementos e importe de la muestra analizada respecto del total.

De acuerdo con lo establecido en el presente Convenio, la Entidad Colaboradora queda obligada a comunicar a la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social - las altas y bajas, tanto definitivas como temporales, que se produzcan, así como cualquier otra incidencia que afecte al normal desarrollo del servicio.

Y, en general, a facilitar cuanta documentación le sea requerida por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia a fin de comprobar la buena marcha y funcionamiento del servicio en lo que afecta a las personas usuarias, personal, administración, etc.

OTRAS OBLIGACIONES.

1. La Entidad Colaboradora se ajustará estrictamente a las condiciones y disposiciones legales que le sean aplicables en todos sus ámbitos.

2. Corresponde a la Entidad Colaboradora la solicitud y tramitación de todas las autorizaciones y registros a que estuviere obligada de conformidad con la normativa que le sea aplicable.

3. La Entidad Colaboradora se obliga al pago de los impuestos, gravámenes, etc. que le sean de aplicación.

4. En cualquier actividad que, relacionada con el presente Convenio, tenga proyección exterior, se hará constar la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social-, incluyendo su denominación y logotipo, siendo éste el formado por el anagrama de la Diputación acompañado del texto que se determine en su momento.

5. La Entidad Colaboradora, en sus relaciones con la Diputación Foral de Bizkaia, las personas usuarias y familiares encargados/as de las mismas, utilizará los impresos bilingües, aprobados por el Departamento de Acción Social, en los que figure la pertenencia del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aldundiarena dela eta itunduta dagoela agertuko da.

6. Erakunde laguntzaileak hitzarmenaren indarraldian hizkuntzaren erabilera ez sexista egingo du behin betiko dokumentu idatzi zein digital orotan. Era berean, erakunde horrek datuak sexuaren arabera bereizi behar ditu sortzen den pertsonei buruzko estatistika orotan. Hori guztia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 2.4 artikuluaren babesean. Bertan azaltzen dira errespetatu beharreko printzipio orokorrak.

7. Hitzartutako erakundeak konpromisoa hartzen du, arkitektura- eta komunikazio-oztopoak ezabatzen laguntzeko, ahal duen neurrian, hitzarmen honen ildotik antolatzen diren jarduera, ekitaldi edo zerbitzuetan.

8. Erakunde laguntzaileak konpromisoa hartzen du, kontrol ekonomikoari dagokionean, hitzarmen honen indarraldian jasotzen diren eta xede bera duten diru-laguntzen edo laguntzen berri emateko Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari. Jakinarazpenak gastua frogatzeko ezarri diren epeetan egingo dira.

9. Aseguruak:

- Zerbitzua ematean erantzukizuna oso-osorik erakunde laguntzailearena izango da, eta asegurua sinatu beharko du. Hartan behar bezala deskribatuko dira erabilera eta jarduera. Aseguruak eraikuntza berriaren / ondasun berrien balioa estali behar du gutxienez, eta, gainera, bidezko arrisku guztiak estali behar ditu.

- Erakunde laguntzaileak erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat sinatu beharko du oro har hitzartutako zerbitzurako, kasu honetan 1.000.000 €-ko gutxieneko estaldurarekin, hitzartutako zerbitzuak ematetik eratorritako erreklamazioak ziurtatzeko, bai eta titulazio ofiziala

servicio a la Diputación Foral de Bizkaia como servicio convenido.

6. La Entidad Colaboradora a lo largo de la vigencia del convenio deberá hacer un uso no sexista del lenguaje en cualquier documento definitivo escrito o digital. Asimismo, deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, todo ello al amparo del artículo 2.4 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

7. La entidad convenida se compromete, en la media de sus posibilidades, a colaborar en la eliminación de barreras arquitectónicas y de comunicación, en relación con los servicios, eventos o actividades que se organicen relacionados con el presente Convenio.

8. La Entidad Colaboradora se compromete, en orden a un seguimiento económico, a notificar a la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social las subvenciones o ayudas de cualquier tipo que se reciban durante la vigencia de este convenio y que se refieran a su mismo objeto. Dichas notificaciones se efectuarán en los plazos previstos para la justificación del gasto.

9. Seguros:

- La responsabilidad derivada de la prestación del servicio será asumida íntegramente por la entidad colaboradora, debiendo suscribir el correspondiente seguro en el que esté apropiadamente descrito el uso y actividad en él realizados. La suma asegurada no será inferior al valor de nueva construcción/reposición de los bienes y la relación de riesgos cubiertos será tan amplia como razonablemente sea posible.

- La entidad colaboradora vendrá obligada a suscribir con carácter general para el servicio convenido, una póliza de seguro de responsabilidad civil, en el presente caso con una cobertura mínima de 1.000.000 €, con objeto de asegurar las reclamaciones derivadas de la prestación de los servicios

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eskatzen zaion erakunde laguntzaileko langileen edozein jardueratik eratorritako erantzukizun zibilak ziurtatzeko ere, erreserbarik gabe, zerbitzua gauzatzearen eta bere betebeharren garapen orokorraren ondorioz hirugarrenei sor dakizkiekeen zuzeneko eta zeharkako kalte guztiak eta/edo ondoriozkoak ziurtatzeko. Aseguruaren barruan hirugarrentzat hartuko dira, halaber, Bizkaiko Foru Aldundia, zerbitzuaren erabiltzailea, langileak, boluntarioak eta, hala badagokio, erakunde laguntzailearen azpikontratatutako erakundeak (bere zerbitzura dauden langileak barne).

Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak – Gizarte Ekintza Sailak – aseguru gehigarriak kontratatzeko eskatu ahal izango du, prestazioaren ezaugarriek hala eskatzen dutenean.

- Erakunde laguntzaileak eskatutako aseguruak kontratatu dituela eta indarrean daudela frogatu behar du hitzarmena sinatu baino lehen; horretarako, poliza osoaren kopia aurkeztu behar du, eta haiekin batera asegurua indarrean dagoela eta primak ordaindu dituela frogatzen duen ziurtagiria, aseguru-konpainiak emana, edo, bestela, konpainiaren ordainagiriak aseguruen indarraldia frogatzeko.

10. Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharrak beteta eduki behar dira, bai eta zerga betebeharrak ere.

11. Ezin du debeku, ezgaitasun edo bateraezintasunean erori eta 9/2017 Legearen, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora eramaten dituen 71. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

12. Hitzarmenak irauten duen bitartean ez du IFZ galduko, ezta behin-behinean ere.

convenidos, así como las responsabilidades civiles derivadas de cualquier actividad del personal de la entidad colaboradora para la que se requiera titulación oficial, que asegure, sin reservas, cuantos daños directos e indirectos y/o consecuenciales puedan serle exigibles por posibles afecciones a terceros derivados de la ejecución del servicio y desarrollo general de sus obligaciones. Dentro del seguro tendrán también la consideración de terceros tanto la Diputación Foral de Bizkaia como la persona usuaria del servicio, el personal empleado, el personal voluntario y, en su caso, las entidades subcontratadas (incluido el personal a su servicio) de la entidad colaboradora.

No obstante, la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social - podrá exigir la contratación de seguros adicionales cuando las características de la prestación así lo requieran.

- La Entidad Colaboradora deberá acreditar la contratación y vigencia de los seguros aquí requeridos antes de la firma del convenio, aportando copia íntegra de las pólizas y Certificados de las Compañías Aseguradoras donde se acredite la vigencia de los seguros y estar al corriente del pago de las primas de los mismos o, en defecto de esto último, los recibos de las respectivas Compañías Aseguradoras que acrediten dicha vigencia.

10. Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social, así como de las obligaciones tributarias.

11. No estar incursa en causa de prohibición, incapacidad o incompatibilidad, cumpliendo los requisitos contenidos en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se trasponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

12. No perder, ni siquiera con carácter provisional, el NIF durante la vigencia del convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: III4-X8OS-HTWG-EYCG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

13. Erakunde laguntzaileak eta azpikontratatutako erakundeek, hala baleude, hitzartutako zerbitzua emateko langileak kontratatu beharko dituzte. Langileak erakunde horiei soilik atxikita egongo dira; horrenbestez, enpresariei dagozkien eskubide eta betebehar guztiak izango dituzte eta lanaren arloko, gizarte segurantzaren arloko, laneko segurtasunaren eta higienearen arloko eta laneko arriskuen aurre-arretaren arloko indarreko xedapen guztiak bete beharko dituzte, bai eta gizarte prestakuntzaren arlokoak ere azken horiei dagokienez.

14. Erakunde laguntzaileak suteen, hutsegite elektriko, uholde eta bestelako ezbehar guztien aurkako segurtasun sistemak antolatu eta mantendu behar ditu. Denetariko arriskuen aurre-arretaz eta detekzioaz arduratu behar da eta ezbeharrak onbideratzeko eta larrialdian jendea kanporatzeko sistemak prestatu behar ditu.

15. Halaber, batak zein besteak erabiltzaileen eta enplegatuen segurtasun orokorraren ardura ere izango du. Horretarako, laneko arriskuen aurre-arretarako plana idatzi behar du indarreko legeriaren arabera.

16. Erakunde laguntzaileak bere gain hartuko du zerbitzua egiteko jarduketengatik langileek, zerbitzua jasotzen dutenek edo gainontzekoek jasaten dituzten ezbeharren edo kalteen erantzukizuna.

17. Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule inskribaturiko kontu-auditore baten txostena eta urteko kontuen auditoria aurkeztea. Auditoreak egindako txostenean hitzartutako zentroari egotz dakizkiokeen diru-sarreren eta gastuen justifikazio-kontua ikuskatuko da, barne kudeaketarako betebeharrak atalaren 2.2º puntuan deskribatutako prozeduraren arabera.

18. Erakunde laguntzaileak konpromisoa hartzen du azpikontratatutako erakundeei

